

Lezo Urreiztieta

Josu Landa

Argia, 1.279. zk., 1990-02-11: 62-63.

Urreiztieta Rekalde bizkaitarra, herri honen historia hurbilaren alde ezkutu ugari horietakoa dugu. Itsasuntzietan hazia, gazte-gaztetandik kontrabandoan aritua, bera izan zen 36ko gerrako Eusko Gudalostearen arma gehienak lortu zituenak, eta baita blokeo frankista izugarria hautsiz janariz betetako itsasuntzia Bilboko portura eraman zuena. Akzioko gizona zen, izugarri abila itsasoan, XX. mendeko pirata. Idealista izanagatik, euskal Herriko borroketara erabili zuen bere iaiotasuna, ondasun guztiak galtzeraino. Erradikala eta izaera sutsukoa, eskertzarreko egoeran bizi zituen azken urteak Baionan 1981an hil zen arte.

Martin Ugaldek Lezo hil baino urte batzu lehenago zenbait elkar hizketa luze grabatu zituen harekin. Elkar hizketa horiek baliatuz eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza bati esker pertsonaia nagusi horren biografia osatu du. Honelako lanek funtzio bikoitza betetzen dute: alde batetik, gure historiarako inportantea den jendearen testigantza hil aurretik jasotzea; bestetik, luzeago begiratuta, gerora historia berregingo dutenentzako ahalik eta datu gehienak biltzea. Horixe bait da arazo larriena, hil baino lehenago jende horrekin egin beharreko kazetal lan isil baina astuna. Martinek betidanik izan du jenero horretarako joera, eta argitaratuta dituen liburuez gain hamaika zinta ditu transkripzio eta erredakzio zai. Zinez merezi luke lan horretan segi dezan behar diren laguntza guztiak luzatzea.

Liburua ez da elkar hizketa hutsa, grabazioak landuz osatutako biografia baino. Pena da liburua gerra garaiko urteetaraino besterik ez iristea. Azken 30 urteetako ibileretaz apenas ezer kontatzen zaigun. Liburuan bertan iragartzen zaigu azken aldi horretan ere lan eta aktibismo ugarietan murgilduta ibili zela Lezo. Datu haundirik ez zaigu ematen baina. Beharbada, Lezo Urreiztietak berak ez zuelako nahi izan.